

Erabiltzaileentzako jarraibideak

BiV euskal hizkeren bariazio sintaktikoari eta bariazio honen banaketari buruzko informazioa eskaintzen duen datu-base linguistiko bat da. Informaziora heltzeko, hizkuntza-ezaugarri jakin bat edo gako hitz bat hauta dezake erabiltzaileak, edo bestela, euskalki edo hizkera bat.

Ezaugarriak

BiVen bigarren argitalpen honetan, 69 ezaugarri aztertu ditugu 28 hizkeratan. Menu nagusiko *Ezaugarriak* gelaxkan klikatuz, ezaugarrien taulara hel daiteke. Ezaugarriak zortzi ataletan sailkatu daude:

- Kasu eta komunztadura (24 ezaugarri)
- Aditz laguntzailearen alternantzia (7 ezaugarri)
- Aspektua (9 ezaugarri)
- Postposizioak (6 ezaugarri)
- Postposizioak (lokatiboak) (7 ezaugarri)
- Iragangaiztasuna eta iragankortasuna (5 ezaugarri)
- Konplementatzailea (7 ezaugarri)
- Modua (4 ezaugarri)

Edozein ezaugarriaren izenaren gainean klik eginez, ezaugarriaren inguruko informazioa eskaintzen duen orrialdera helduko da erabiltzailea. Honakoa da antolaketa:

Ezaugarri bakoitzaren barruan ereduak daude. Lehenik, *eredu orokorra* aurkeztu dugu, euskal hizkeren artean orokortuen dagoen eredu, alegia. Bigarrenik, *hizkera eredu* ageri da, hots, orokortutako eredutik bereizten dena. Ohar bedi ezaugarri batzuen barruan hizkera eredu bat baino gehiago aurki daitezkeela. Hauek ezaugarriei dagozkien aukerak erakusten dituzte.

Adibidea:

Ezaugarria: Jabetzaren adierazpena: *eduki, ukan* (v *izan/*edun*)

Eredu orokorra. Aditz laguntzaileak izateaz gain, *izan /*edun* jabetza adierazten duten aditz nagusiak ere izan daitezke.

Hizkera eredu 1. Hizkera batzuetan, *izan /*edun* aditzen ordez, *eduki* aditz lexikoa erabiltzen da jabetza adierazteko.

Hizkera eredu 2. Ipar-ekialdeko hizkeretan *ukan* aditza ere azaltzen da partizipiozko forman.

Eredu orokorrean *izan* eta **edun* aditza bai aditz laguntzaile gisa bai jabetza adierazten duen aditz nagusi bezala erabiltzen da. Bestalde, bi hizkera eredu daude: jabetza adierazteko *eduki* hautatzen duen eredu eta *ukan* hautatzen duena.

Hirugarrenik, zenbait hizkera ereduren barnean, *azpi-hizkera ereduak* daude, hizkera eredu zenbait alderdi sakonago zehazten dituztenak.

Adibidea:

Ezaugarria: Osagarrien Markapen Bereizgarria: *ikusi nitzun* (v *ikusi zintudan*)

Eredu orokorra. Osagarri zuzena absolutibo kasuarekin markatzen da eta absolutibo komunztadura erakusten du aditz jokatuan.

Hizkera eredia. Lehenaldiko aditz jokatueta, osagarri bizidunak datibo kasuarekin markatzen dira eta datibo komunztadura erakusten dute aditz jokatuan.

Azpi-hizkera eredia. Zenbait hizkeratan, orainaldiko formetan ere datibo kasuaz eta komunztaduraz markatzen da osagarria.

Hizkera eredia jarraitzen duten hizkerek lehenaldian osagarriaren markapen bereizgarria dute, eta *azpi-hizkera eredia* jarraitzen dutenek orainaldian ere ezaugarri hau erakusten dute. Beraz, azpi-hizkera ereduak hizkera eredia betetzen duten hizkerari eragiten die, eta hizkera ereduaren zenbait alderdi zehazten ditu.

Ezaugarri bakoitzaren orrialdean ageri den *Erantzunak* estekan klikatuz, ezaugarriaren hizkera eremura hel gaitzke bere aldaera eta guzti. Ezaugarri bakoitzak BAI edo EZ balioa du aztertutako herrietan. BAI azaltzen da ezaugarriarekin lotutako hizkera eredia lekukotzen denean. EZ agertzeak, berriz, adierazten du ez dela lekukotzen. Hizkera batzuetan, ezaugarri batzuk bi balioak dituzte: BAI/EZ. Honek adierazten du hizkera eredia lekukotzen dela, baina, azpi-hizkera eredia, ez.

Mapan, BAI erantzunak kolore HORIZ azaltzen dira, eta EZ erantzunak, URDINEZ. Hizkera eredu bat baino gehiago dagoen ezaugarrietan edota azpi-hizkera ereduak daudenetan, eredu bakoitzari dagokion mapa bat dago.

Gako hitzak

Ezaugarri buruzko informaziora iristeko beste modu bat gako *Gako hitzak* deritzon gelaxkan klik egitea da. Bertan hizkuntzalaritzan ezagunak diren eta ezaugarriak identifikatzea errazten duten gako hitzen bitartez sailkatzen dira ezaugarriak. Edozein ezaugarriaren izenaren gainean klik eginez, ezaugarriaren deskribapenera, erantzunetara eta banaketara hel daiteke.

Hizkerak

Hizkera jakin bat aukeratuz ere hel daiteke informaziora. Menu nagusiko *Hizkerak* gelaxkan klik eginez, aztertutako hizkera guztiak biltzen dituen taula batekin egingo du topo erabiltzaileak. Hizkera bat hautatzean, hizkera horretan erdietsitako erantzun guztiak bistaratzen dira: lekukotutako ezaugarriak nahiz lekukotu gabeak.

Informazioa jaisteko aukerak

Ezaugarriaren deskripzioa eta banaketaren informazioa PDF formatuan jaits daiteke ezaugarriaren orrialdearen goialdean ageri den PDF ikonoan klik eginez. Horrez gain, erantzunen taulak csv, xls eta xml formatuetan ere eskura daitezke.